

Egitekoa

Jabi Salz Sorbeltz autokarabana erabiltzaileen euskal elkarteko idazkariari egindako elkarrizketa irakurriko duzu. Galderak eta erantzunak bereizi egin ditugu. Saia zaitez testu bakoitza dagokion galderarekin lotzen.

«Leku batetik bestera joateko aukera onena dira»

A=0

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bai, turismo legearen bitartez. Hemen bakarrik gertatzen da hori; Espainian ez. Autokarabana aparkatuta noiz dagoen eta kanpatuta noiz dagoen bereizten da modu horretan.

B

Ibilgailua lau gurpilen gainean dagoenean, bere perimetroa gainditzen ez duenean, aparkatuta dago. Edozein parkinetan gera zaitezke horrelakoetan, bai gaua pasatzen, bai barruan zerbait hartzen. Perimetroa pasatzen badu, ordea, mahaia edo aulkiak kanpora aterata, adibidez, kanpatuta dago. Orduan kanpinetan sartu beharra dago, modu librean kanpatzea debekatuta baitago.

C

Atsedean hartzen geratzeko eta lo egiteko autokarabanentzako parkin bereziak aldarrikatzen ditugu. Gainera, autokarabanak dituen biltokiko ura hustu eta bete ahal izateko gune ekologikoak nahi ditugu. Harraskako, dutxako eta komuneko urak ur zikinen biltokira joaten dira, eta ur hori ezin da edozein estoldatan bota. Leku konkretu batzuetan eta modu kontrolatuan egin behar da. Ur biltokia hustea eta betetzea oinarritzakoa da autokarabanan; gainontzean, ibilgailu autonomoa da, argindarra, dutxa, sukaldea eta berogailua baititu. Jadanik badaude gune ekologiko batzuk, baina Euskal Herrian sare bat osatzea gustatuko litzaiguke. Udalekin hitz egiten ari gara, eta pixkanaka lortuko dugula iruditzen zait.

D

Horrelako parkin bereziak Gasteizen, Bilbon eta Donostian daude jarrita. Baita herri batzuetan ere: Bermeon, Lekeition, Zumaian, Errenterian eta Legazpin, adibidez. Hamar bat daude.

E

Azken bospasei urteotan izugarritzko gorakada izan da. Nolabaiteko boom bat egon da. Orain dela sei edo zazpi urte, oso autokarabana gutxi zeuden Euskal Herrian. Lehen, erretiratuak izaten ziren gehienbat, eta orain jende gazte askok erosi du autokarabana hurrekin bidaiatzeko. Fenomenoaren isla dira gure elkarteko datuak. Orain dela bost urte sortu zen Sorbeltz, eta, gaur egun, ia 400 bazkide gara. Azken bi urteotan bikoiztu egin da kopurua.

F

Mugaz bestaldean, adibidez, autokarabanan bidaiatzeko ohitura handia dago. 5.000 parkin berezi daude han. Herri txiki askok jartzen dituzte gunek horiek turismoa erakartzeko. Euskal Herritik ere tradizio handia dugu Landetara joateko. Oso gertu dago, eta ongi hornituta dago. Espainian ez dago hain zabaldua.

G

Edozein momentutan irten zaitezke, aurretik lo egiteko lekuri hartu gabe, eta bakoitzak nahi duen gisara antolatzen du bidaia. Leku batean gustura bazaude, hantxe geratzen zara denbora gehiago. Ez da eguraldiaren menpe egon behar, gainera. Iparraldean eguraldi txarra dagoela? Bada, hegoaldera zoaz. Leku batetik bestera bidaiatzeko aukerarik onena da autokarabana. Gure artean harreman berezia sortzen da, eta elkarri laguntzen diogu. Askatasun izugarria ematen du autokarabanak

H

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako jendea gara gehienak, baina Iparraldeko eta Nafarroako bazkideak ere baditugu. Euskal Herritik kanpo, Huescako, Asturiasko eta Galiziakoren bat ere badago.

Ilargi Agirre Donostia (Berria 2012-03-10)

Lotu testu bakoitza dagokion galderarekin. Galdera bat soberan dago.

(0) Autokarabanaren erabilera araututa al dago?

- 1.- Zein dira autokarabanan bidaiatzearen abantailak?
- 2.- Azken urteetan bilakaerarik izan al da?
- 3.- Non daude gunek ekologiko horiek?
- 4.- Nolakoa da inguruko herrialdeetan egoera?
- 5.- Nortzuk osatzen duzue elkartea?
- 6.- Zein da aldea?
- 7.- Elkartekook zein eskaera egiten dituzue?
- 8.- Zein ekintza egiten dituzue Sorbeltzen?

Idatzi dagokion zenbakia beheko laukietan:

Testu zatiak	A	B	C	D	E	F	G	H
Galdera	0							